



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAREN KARATULA, BASIKOTASUN HANDIKO ALUMINIOZKO OINARRIZKO POLIKLOROSULFATOAREN HORNIKETA KONTRATATZEKO. 3258. ESPEDIENTEA

Erregulazio harmonizatuari loturiko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Jon Gorriti Cabrejas
4.- Kontratazio Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Kontratuaren xedea: Basikotasun handiko aluminiozko oinarritzko poliklorosulfatoa hornitzea Burgoako (Gernika) eta Bermeoko edateko uren tratamendutegietan (BBUPren instalazioak). 2.- Bete beharreko premiak: Kontratu honen bidez, BBUPk aipatutako errektiboak eskuratu nahi du, edateko ura produzitzeko ur gordinaren nahitaezko tratamendu-prozesuaren parte baita, urtarilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretua bete ahal izateko (kontsumorako uraren kalitateari, kontrolari eta hornikuntzari buruzko irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen ditu). 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Instalazio bat baino gehiagotako hornikuntzak izan arren, elkarren artean erlazionatuta daude. Izan ere, beharren arabera eta ur-ekoizpena bermatzeko, loteen hornitzaile guztiek aukera izan behar lukete produktua instalazio guztietan entregatzeko, eta, aldi berean, hornitzaile batzuen eta besteen produktuak nahastuz gero, produktuaren trazabilitatea gal liteke, besteak beste, erreklamazioak egiteko eta herritarrei hornitutako edateko uraren kalitatean gorabeherak konpontzeko.
4.- CPV: CPV kodea: 24313123-9 Deskribapena:Aluminio sulfatoa
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.-Izaera juridikoa ☒ Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	BERROGEITA HAMABI MILA ETA BERREHUN EURO (52.200 €)
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: EHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEI EURO (172.260,00 €) Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.-Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Aleko prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko kuotak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu- aplikazioa: 2026. urtea ---- 221.13.169.12 partida ---- 8.700 € (BEZik gabe) 2027. urtea ---- 221.13.169.12 partida ---- 43.500 € (BEZik gabe)	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ EZ	
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.-Ordaintzeko modua: Ohikoa	
8.- Ordainketak kontura: Ez da behar.	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: URTE BAT (1)
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.-Luzapena ☒ BAI ☐ EZ URTE BATEKO (1) BI (2) luzapen
4.-Berme-epea: 0 hilabete
5.- Kontratua gauzatzeko tokia: BBUPren instalazioak
6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.



E.- BERMEAK

- | | |
|---|--------------------------|
| ☒ Behin betiko bermea: % 5 | Zenbatekoa: Adjudikazioa |
| ☐ Berme osagarria: | Zenbatekoa: |

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin.

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknika bide hauen bidez egiaztatu beharko da: 1- 2- 3- 4-

1.- Kontratuaren xedearen mota berekoa edo antzekoa (CPVren 24313123-9 Aluminio sulfatoa kodearen arabera) izanik azken hiru urteetan egindako hornikuntza nagusien zerrenda, eta gauzatze handieneko urtean horien zenbateko metatua urteko kontratuaren batezbesteko urteko kopuruaren ehuneko 70 edo gehiago izatea. Hartzailea erakunde publikoa izan bada, organo eskudunak egindako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako hornikuntzak; subjektu pribatua izan bada, hark egindako ziurtagiriaren bidez edo, ziurtagiri hori izan ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, eta enpresaburuak dituen eta prestazioa egin duela egiaztatzen duten agiriak entregatuta horrekin batera; hala badagokio, ziurtagiri horiek zuzenean emango dizkio agintaritzak eskudunak kontratazio-organoari.

2.- Kalitate-arau teknikoak betetzen direla frogatzea (UNE-EN 17034:2018). Horretarako, substantzia, ezpurutasun eta azpiproduktu nagusien lagin baten analisiaren emaitzek dagokien UNE-EN araua betetzen dutela egiaztatzen duen ziurtagiri bat entregatu beharko da, honako ezaugarri hauek dituen laborategi batek emana:

- a. UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztatuta izatea UNE-EN arauak deskribatzen duen analisi-metodoa.
- b. Gutxienez, ura analizatzeko beste metodoren batekin egiaztatuta egotea eta eskatutako metodoak eta analisiak baliozkotuta izatea.
- c. Laborategiko jardunbide egokiaren ziurtagiria izatea substantzia kimikoen saiakuntza ez-klinikoetan, biozidak eta REACH araudiak arautzen dituen substantziak barne.

3.- PTPPren 4.1 apartatuan (Ezaugarri teknikoak eta ezpurutasun-maila) eskatutako parametroetarako, eta aurreko 2. apartatuan eskatutako analisisian sartu ez direnetarako, batez ere bermatutako kopuruari lotuta, aurreko apartatuan adierazitako analisiaren baliokide baten bidez frogatu beharko da betetzen direla.

4.- Giza kontsumorako ura produzitzeko erabiltzen den ura tratatzeko substantziei buruzko informazioa, zeina, gainera, ura eguneratzen edo aldatzen den bakoitzean emango baita:

- a. Substantziaren edo nahasketaren segurtasun-datuen fitxa osoa, REACH araudiaren arabera.
- b. Substantzia edo nahasketa erabiltzeko eskuliburua. Honako hauek jaso behar ditu, gutxienez:
 - I. Erabiltzeko modua
 - II. Gomendatutako dosia
 - III. Helburua.
 - IV. Beste produktu eta/edo material batzuekiko bateraezintasuna

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

Giza baliabideak eta baliabide materiala atxikitzea



- 1- Adjudikaziodunak eta garraio-enpresak (garraioa azpikontratatzeko bada) segurtasun-aholkularia dutela egiaztatzen duen ziurtagiri sinatua, eta hori bermatzen duten dokumentuak entregatzea.
- 2- Fabrikatzailea ez bada, produktuaren fabrikatzaileak sinatutako konpromiso-gutun bat entregatuko du. Gutun horretan, produktuaren hornikuntza bermatuko da kontratuaren iraunaldirako.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentu honetan azaldutako irizpide teknikoak ebaluatu ahal izateko, memoria tekniko bat egingo du, eta alderdi hauek zehaztuko dira bertan:

o Kontratuaren esku dauden baliabide teknikoak:

Kontratuari esleitutako baliabide teknikoak eta antolamendukoak zehaztuko dira, baita zerbitzuari dagokion ekipoaren antolaketa eta kontratuari PTPPre "4.12 Hornikuntza-erritmoa" apartatuan zehaztutako baldintzetan zerbitzua emateko justifikazioa ere. Kontratuari eskainitako biltegia.

o Laborategiko probak

Laborategiko probak egin ahal izateko, lizitazioan zehar, Beteluriko EUTren kontrol-eraikinean eskainitako produktuaren 1 kg-ko lagin bat entregatu beharko da.

Gehienez 20 orrialde (alde bakarretik) onartuko dira memoria teknikorako, eta honako ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL 10 puntu.
- Gutxieneko lerroartea: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehienezko orrialde-kopurua zenbatzeko, aurkibidea hartuko da kontuan. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK:

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da **I. eranskinaren** ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.

PARTIDA	UDS. (t)	PRECIO (€/t)	IMPORTE (€)
Suministro de policlorosulfato de aluminio de alta basicidad en GRGs/IBC de 1.000 L.	130		
TOTAL	130		

En el precio unitario ofertado (precio por tonelada de producto comercial) se entenderán incluidos todos los gastos que se originen para situar la mercancía en las instalaciones del CABB (ETAPs Bermeo y Gernika).

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak egiteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
- 3.- Eskaintzak elektronikoki egitea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak egiteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintzarik merkeenari emango zaio puntuaziorik handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko txikienaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaizkion puntu guztizko kopuruarekin biderkatzea.

Hau da:

$$(Ob / OI) \times z$$

Argibideak:

- Ob = eskaintza ekonomiko txikiena
OI = baloratzeke dagoen lizitatzaillearen eskaera
z = honako irizpideari aplikagarri zaizkion puntu guztiak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK 50 PUNTU

1. Zerbitzuaren eskura dauden baliabide teknikoak eta antolakuntzakoak----- 20 puntu

- Kontratuari esleitutako baliabide teknikoak eta antolakuntzakoak
- Hornikuntzaren planifikazioa
- Erantzun-ahalmena Taldeak (lanegunetan eta jaiegunetan).

2. Laborategiko probak----- 30 puntu

- Erabilitako dosia, flokuluaaren sorrera eta tamaina, dekantagarritasuna, pH-a, uhertasuna, hondar-aluminioa eta errendimendua baloratuko dira.

Ezaugarri teknikoak eta ekonomikoak kontuan hartuta, **K = 1** faktore zuzentzailea aplikatuko zaie txosten teknikoaren azken puntuazioei.

Haren emaitza batuko zaio lortutako puntuazio ekonomikoari.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizareratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra izanik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino % 25 txikiagoa denean.
- Bi lizitatzaille izanik, beste eskaintzaren aldean % 20 baino txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzaille izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea % 25 baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa baino % 10 handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna duten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **XXX puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Preskripzio tekniko partikularren pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Preskripzio tekniko partikularren pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak. Zigor hauek aplikatu ahal izango dira, eta haien likidazioa berehala egingo da: ordaintzeko dagoen lehenengo fakturatik kenduko da zenbatekoa, edo, hala badagokio, amaierako likidaziotik edo eratutako behin betiko bermearen kargura.

Zigorak aplikatzeak eta ordaintzeak ez du baztertzen BBUPk kontratistari egotz dakioken ez-betetzearen ondorioz sortutako kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea.

Baldintzak bete ezean, zigor hauek aplikatuko dira:

Pisatzean baldintzak ez betetzeagatiko zigorrak:

BBUPk lortutako pisua hornitzaileak adierazitakoa baino txikiagoa bada, eta bien arteko aldea ehuneko bi edo handiagoa (% 2), desbideratze horren bikoitzaren pareko zigorra aplikatuko zaio, bai kontrolatu den entregaren zenbatekoari, bai azken kontrolatik egindako errektibo beraren aurreko guztiei.

Kalitateari lotutako baldintzak ez betetzeagatiko zigorrak:

Produktuaren analisisan edo jasotako ziurtagiriaren/analisi-buletinaren balioetako bat preskripzio teknikoaren pleguan ezpurutasun eta azpiproduktu nagusietarako adierazitako mugak baino handiagoa bada,



M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

desbideratze horren ehuneko bikoitzaren baliokide den zigorra ezarriko da, bai kontrolatu den entregan, bai hornitzaile berak egindako aurreko guztietan, azken kontroletik edo laborategi akreditatu batek egindako azken analisiaren egunetik aurrera.

Egindako analisiaren balioa kontratisten PTPPn eskatutako produktu kimikoaren kopuruaren mugatik kanpo badago (% 3), desbideratze horren bikoitzaren baliokide den zigorra aplikatuko zaio, bai kontrolatu den entregari, bai hornitzaile berak egindako aurreko guztiei, azken kontroletik aurrera edo egiaztatutako laborategiak egindako azken analisiaren egunetik aurrera.

Entrega-erritmoa ez betetzeagatik zigorrak:

Horniketa arrunta:

BBUPri egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik eskaera normaletarako horniketa-erritmoa betetzen ez bada, horniketa horren zenbatekoaren % 25eko zigorra ezarri ahal izango da lehenengo aldian atzeratzen den egun bakoitzeko, BBUPren kontratuaren arduradunaren iritziz. 2. alditik aurrera, zigorraren zenbatekoa hornidura horren zenbatekoaren % 50 izan daiteke atzeratutako egun bakoitzeko, eta kontratua suntsiarazi ahal izango da, baita fidantza galdu ere eragindako kalteen konpentsazio gisa.

Premiazko horniketa:

Telefono bidez edo posta elektronikoz (24/7) erantzuten ez bada, eta eskaera urgenteak eskatutako epean izapidetzen, egiten eta ematen ez badira, BBUPk, kontratuaren arduradunaren iritziz, eskatutako horniduraren zenbatekoaren % 50eko zigorra ezarri ahal izango du atzeratutako egun bakoitzeko, eta, gainera, kontratua suntsiarazi ahal izango da, fidantza galduta eragindako kalteen konpentsazio gisa.

Bi kasuetan, eskatutako erreaktiboaren kopurua ez hornitzeagatik BBUPk ekoizpena gelditu edo murriztu behar badu eta, ondorioz, edateko uraren hornikuntza eten, araztu gabeko urak isuri edo gas kutsagarriak isuri behar baditu, adjudikaziodunak bere gain hartu behar ditu horietatik erator daitezkeen edo berari egotz dakizkiokeen zehapen edo isunak, bai BBUPri bai zuzenean enpresa adjudikaziodunari ezartzen bazaizkio.

Analisi egiaztatuak ez entregatzeagatik zigorrak

Kontzeptu horrengatik aplika daitezkeen zigorrak analisiaren kostuaren hirukoitza izango dira, baldin eta preskripzio teknikoen pleguan ezarritako epean entregatzen ez bada. Kostu hori kalkulatzeko, ez-betetzea gertatzen den unean AENOR Laborategiak azterketa horretarako ezarrita duen tarifa hartuko da erreferentziazat.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK ENTREGATU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

SPKLren 301.2 artikulua arabera, hornitu beharreko aleen kopurua handitu ahal izango da, dagokion aldaketa-espeditatea izapidetu behar izan gabe. Kontratuaren prezioaren zein ehunekori eragin diezaiokeen gehienez: Kontratuaren prezioaren % 10. Kontratuaren balio zenbatetsirako ezarritako zenbatekoa.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra

☐ Azpikontratazioaren mugak



P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA:

Adjudikaziodunak ordezkari bat izendatuko du, kontratuaren baldintzei eragiten dieten alderdi guztietan jarduteko eta/edo enpresa ordezkatzeko gaitasun nahikoa duena.